

547/2025 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 6ko 267/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025eko apirilaren 10eko EHAA 70 zk. eta 2025eko apirilaren 22ko BOE 97 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko maiatzaren 14an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2025eko maiatzaren 15a.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUNO.

DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ONKOLOGIA MEDIKOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Naiara Sagastibeltza Mariñelarena.

Baztertuak:

- Inor ez.

Donostia, 2025eko maiatzaren 15a.

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.